

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2022ko ekainaren 27a, astelehena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieto, Jose Javier Gomez de Segura Arce eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Ana Priede Merchan zinegotziak (PSE-EE-PSOE) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko ludoteka eta gazteleku zerbitzua kontratatzeke baldintza administratibo partikularrak eta baldintza teknikoak.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 8/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, Osakidetzako herrietako anbulatorioak ixtearen aurka eta osasun-sistema publikoa indartzearen alde.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gazteria-batzordeak 2022ko ekainaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Orioko ludoteka eta gazteleku zerbitzua kontratatzeke baldintza administratibo partikularrak eta baldintza teknikoak. Kontratazioa prozedura irekiz egingo da, erregulazio harmonizatuari lotuta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 8/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egingo da eta 25.229 euroko zenbatekoa du.

Orioko udalbatzarrak honako erabakia hartu zuen, besteak beste, 2022ko maiatzaren 26n egindako ohiko bilkuran:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 8/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egingo da eta 25.229 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, *JENDAURREAN JARTZEA* kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailetza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralerara 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Udaleko Kontu-hartzailetzako teknikariak txostena egin du gaiari buruz eta txosten horretan hau jasotzen du:

- Kreditua aldatzeko 8/2022 zenbakidun espedientea kredituak transferitzeko modalitatean egin dago eta 25.229 euroko zenbatekoa du. Espedienteak aurrekontuko 5 partida gehitzea aurreikusten du; horiek honela finantzatzeko dira: batetik, bi partida gutxituz, guztira 10.429 eurotan, eta, bestetik, kreditu globalaren kargura, 14.800 eurotan.
- Arazoa kredituak aldatzeko espedientea tramitatzean eta jendaurrean jartzean sortu da, kreditu globalak, gehienez ere, 12.326 euro har ditzakeelako. Horrenbestez, 2.474 euro falta dira eta horiek gastu juridikoen aurrekontuko partidaren kargura finantzatzeko dira; beraz, partida hori kopuru berean murriztea proposatzen da.
- Hori horrela, Udalaren kontu-hartzailetzako teknikariak adierazten du gastu juridikoen aurrekontu-partida 4.935 eurotan exekutatu dela, eta, beraz, partida hori 2.474 eurotan murrizteko proposamenak ez diola eragiten zerbitzuaren prestazioari eta ezta ere entitate juridikoen interes orokorrari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontu-hartzailetzako teknikariaren txostena ikusita eta Ogasun- eta pertsonal-batzordearen proposamenez, gaia

eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BEHIN BETIKO ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioaren 8/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari, erabaki honen azalpenean jasotako Kontu-hartzailetzako teknikariak egindako zehaztasunekin. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 25.229 euroko zenbatekoa du.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO EH BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATORIOAK IXTEAREN AURKA ETA OSASUN-SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEAREN ALDE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz, euskarako bertsioan:

OSAKIDETZAKO HERRIETAKO ANBULATEGIEN ITXIERAREN AURKAKO ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Osasun Sistema Publikoan, Osakidetzan gertatzen ari dena ez da berria. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorio da:

- Etenik Gabeko Arreta Guneak, PAC delakoak, itxi dira, edo ordutegiak murriztu dira.*
- Osasun etxeetan izugarrizko profesional gabezia dago. Eta ondorioz, profesional batek, gainerako en agendak bete behar izaten ditu edo egunerokotasunean 45 kontsulta izaten ditu. Egoera horretan ezinezkoa da pazienteei kalitatezko arreta bermatzea.*
- Hainbat eta hainbat osasun etxeetan bizitza osoan izandako zerbitzuak ixten edo murrizten ari dira.*
- Kontsulta presentzialak lortzea gero eta zailagoa izaten da. Atzerapenak nabarmen areagotu dira.*
- Adinekoen eta kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak.*
- Osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar bezala garatu.*

Hau guztia ez da pandemiaren errua, ez zen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira, bereziki 2018tik gaurdaino. Eta guzti honen ondorioak herritarrek (pazienteek) jasaten dituzte, are gehiago herri txikietan.

Pandemian denok ikusi dugu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritzak kontrakoa egiten ari da.

Herri txikietan medikura joateko beste herri edo hiri batera joan beharko dute. Hori ez da aldaketa kultural bat, oinarritzeko eskubide baten aurkako eraso bat baizik, pertsona guztiok kalitatezko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea dugulako, eta hori da orain arriskuan dagoena.

Hori dela eta, Orioko udaleko udalbatzak:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urte osoan zehar, uda sasoian barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunez mediku egoiliarren kontratazio -eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.

Halaber, gainerako osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko xedearekin, aztertzea Osakidetzan kontratazio irizpideak aldatzea, beti ere egonkortasuna eta garapen profesionala sustatuz, horrela Osakidetza erakargarriago bilakatzeko eta indartzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lehen Arretako eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziiplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatriak eta fisioterapeutak.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Orioko egoera konkretuari buruz hitz egiteko bilera bat, honen ondorioz, dagozkion neurriak hartu ditzan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu), Bakarne Oliden Albeniz (EH Bildu) eta Bittor Andres Alkorta (EH Bildu), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; gehiengo sinplea, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbietak (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **BOST ABSTENTZIO**. Kontrako botoa: Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN); guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Orioko EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, Osakidetza herrietako anbulatorioak ixtearen aurka eta osasun-sistema publikoa indartzearen alde, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela, arrazoi honengatik: bat datoz mozioaren erabakien zatiko lau atalen edukiarekin, baina ez

daude ados azalpen-zatiak dioenarekin, kontuan hartu behar baita Covid-19aren pandemiak oso egoera larriak sortu dituela osasun-sistema publikoan eta agerian geratu direla dituen hutsuneak, Osakidetzaren erantzun egokia eskatzen dutenak.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN alderdiaren izenean, eta adierazten du ezezko botoa eman diola, gogoz kontra, mozioaren onarpenari, bere talde politikoan aurrez eztabaidatu eta adostu denarekin bat etorrira.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta adierazten du gaur goizean udal-bozeramaileen batzordea bildu dela, eta bilera horretan eztabaidatu dela EH Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa. Bileran azaldu dira Orioko anbulatorioak dituen hutsuneak, mediku eta erizainei dagokienez: uda garaian 2 mediku egoten dira 3ren partez; eta gaixoak Zarauzko eskualde-zentrora bideratzen dira 08:00etatik 19:00etara (lehen 22:00etara arte zen). Murritzeta horiek 2018an hasi ziren, baina, gaurko egunez, herritarren erantzuna aldatu egin da eta gero eta haserreago daude daukagun osasun-sistema publikoarekin.

Ondorioz, EH Bildu talde politikoak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bilera baten deialdia egiteko, ahalik eta lasterren, Orioko anbulatorioaren gaur egungo egoera konpartitzeko eta, hartara, behar diren neurriak hartzeko.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta adierazten du udalbatzarraren bilkura hau ezohikoa dela, astelehenarekin egin delako, bihartik aurrera San Pedro jaiak ospatuko direlako herrian. Hori dela eta, San Pedro jai zoriontsuak opa dizkie bai oriotarrei eta bai herrira bisitan etorriko direnei.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,